

ZU BAZOAZ, BAINA...

Ustez, zu bazoaz oinez
baina zure oinez
beste norbait daramate beti

(Tristan Tzara)

Zu bazoaz hizketan, baina...
Han, urrutian
Haizeak biltzen ditu zure hitz zakarrak
Isiltasun gazte bekets bati jaten emateko.

Zu bazoaz zeure egiteak oroituz, baina...
Han, urrutian
Oroimen puska odolduak janez
Bizi dela ikusten duzu heriotza.

Zu bazoaz bazterrak erne ikusiz, baina...
Han, urrutian
Zure begiek hustu egiten dute oinaze zaharra
Argi zikin berri batek irakiten dueneko putzura.

Bazoaz bai, zu, iraganez soilik, baina...
Ez. Ez zara iragan ere egiten.
Zure ordezt beste norbait iragaiten baita beti.

Patxi Perurena

TU VAS, PERO...

Crees tú, que vas andando, / pero tus pies siempre / llevan a algún otro.
(Tristan Tzara)

Tú vas hablando, pero... / Allá, a lo lejos / El viento recoge tus ásperas palabras / Para dar de comer a un joven silencio glotón. // Tú vas recordando tus hechos, pero... / Allá, a lo lejos / Ves a la muerte que vive comiendo / Pedazos de memoria ensangrentada. // Tú vas, vivaz, observando tu entorno, pero... / Allá, a lo lejos / Tus ojos vacían un dolor antiguo / Al pozo donde una nueva luz sucia hierve. // Tú vas, sí, pasando solamente, pero... / No. Ni pasas siquiera, porque / En tu lugar siempre pasa algún otro.